


Ibilbide literarioa Ligurian

# Armiarma-habien bidezidorretik barna



Italo Calvinoren *Il sentiero dei nidi di ragno* (Armiarma-habien bidezidorra) nobela oinarri hartuta, Italiako Ligurian hasi du Jon Alonso kazetariak bere ibilbide literarioa. Bertako koadro sozial eta politikoa irudikatu digu ondorengo lerrootan, Italian hauteskundeak ospatzear diren honetan.

Testua eta argazkiak:

**JON ALONSO**

**LAGUNA ETA BLOK** iritsi ginen Albengara (Liguria) eta galdetu egin genuen: bilatzen ari gara Felice Cascione delako baten oroitzapenean eraikitako monumentua.

Felice...!?

Erresistentziako bat.

Erresistentziako zer?

Zerbitzari batekin ari ginen. Errekurtsorik errazena da, noski. Andrea zuen izena, esan zigunez.

Erresistente bat. Erresistente bat bilatzen duzuela? Neu nauzue. 800 € hilean, gasolina 1,4 €-tan dagoen tokian. Monumentu hori niri egin beharko lidakete.

Andrea hau xelebrea zen, nolabait esan. Baina “xelebre” hitzaren adieran kabitzen direnetatik, estimagarrienean.

Gasolinaren aipua laster ulertu genuen. Famatua eta errepikatua da, bai, italiarrek beren *macchina* direlakoak zenbat estimatzen dituzten.

Italiako errepide batean zoaz. Berdin da autopista, nazionala, laugarreneko errepidea edo sasi arteko bidexka. Bat-batean konturatu zara beti-beti-beti daukazula kotxe bat atzean. Badakizu hori zergatik gertatzen den?

Italiera eta gaztelania lehengusu propioak dira, eta Euskal Herrietan usatutako batentzat muga linguistikoak laxoak dira. Eta Andrea hura irekia zen.

Zergatik?

Beti daukazulako beste bat aurrean. Kar, kar, kar...

Ez dakit liguriarren umorearen erakusgarri esanguratsua den, baina badauka bere logika.

Felice Cascioneren oroitzapenean eraikitako monumentura iristeko ordu erdi on bat egin behar da menditik gora, armiarma-habien bidexketatik. Hori, menditarren batek kontatu nahi badizu non dagoen. Guri Massimok kontatu zigun bezala, detaile askoz. Monumentua *tedesco* (alemaniar) batek egina dela. Eskulto-reak berak ordaindu zuela mendi puntaraino garraioa. Urtero festa bat egiten dela bertan. Baina jende arruntarentzat ez da Felice Cascioneren monumentua, *Fischia il vento* baizik. Hirugarrenean galdetuta ikasi genuen.

Halako ibilbide literarioa osatzen ari ginen, baina errealitatearekin egin genuen topo. Gertatu ohi da. Esaterako, Berlusconi eta Veltroni hasiak ziren ordurako kartelak paratzen, artean otsailaren bukaera zen arren, ia bi hilabete falta zirelarik hauteskundeetarako. Ezkerrak Italia lur jota utzi duela, Berlusconi. Zer nolako herria nahi den aukeratzeko ordua dela, alderdien gainetik, Veltronik.

Berlusconi irabaziko du, baina, esan zigun Sabrina Terribilek, Genoako ANPI elkarteke idazkariak, eroapenez, esango nuke.

Sabrina Terribile.

Nola esan duzu?

## Liguria

Liguria Italiako ipar-mendebaldeko eskualdea da, muga egiten duena Frantziarekin mendebaldetik, eta Italiako Piemonte, Emilia-Romagna eta Toskanarekin. Denetara milioi bat eta zazpiehun mila lagun inguru bizi dira bertan. Hiriburua Genoa da, eta lau probintzia dauzka: Imperia, Savona, Genoa eta La Spezia.

Kosta parte oso jendetsua eta turistikoa da, San Remo, Portofino eta Santa Margherita Ligure bezalako herrieekin, eta Cinque Terre parke naturalarekin; barne aldea, aldiz, menditsua eta isolatua da.

Bertako dialektoa ligurera da, genoera ere deitua. Garrantzia handia eduki zuen Erdi Arotik XIX. mendera arte, ospe literarioa eduki zuelako, eta merkataritzako hizkuntza ere bazelako, Genoak itsasoko merkataritzan eduki zuen mendeetako nagusigoa tarteko.



Goiko irudian Nassino (Ligurian). Bertan hil omen zuten Cascione segada batean.

Irribarre zabal bat egin, eta bota zuen:

Nire aita partisanoa izan zen, baina ez da bere orduko izengoitia. Izengoitiaz “Leone” zen. Terribile egiazko abizena daukat.

Makina bat aldiz emandako azalpena, hain segur.

Farinata bat jatera joan ginen. Goxo zegoen. Ez ginen ibili Mitxelin izardunen xerka. Pizza, pasta... ona eta merke. Oinarrizko produktuak (ogia, esnea...), gurean baino merkeago. Gasolina ez, ordea. Furgonetadunak kasu egin ohi die holako xehetasunei. Ardoa ere ona, ardoak mundu zibilizatuan daukan prezioan, hori bai. Sabrina Terribilek baieztatu zuen ANPI (Asso-

## Fischia il vento

Felice Cascione (*il megu*), mediku komunista, bere gizonen eta borrokan ari zela zeharkatu zituen herrietako jendeak oso estimatua, Liguriako erresistentziako heroietako bat, 45ean hil zen Nassino herrian, segada batean. Hil baino lehen, ordea, kantu errusiar oso ezagun baten musikari letra paratu zion, partisansoen artean hagitz ezagun egin zen kantua osatuz: *Fischia il vento*.

*Fischia il vento e infuria la bufera,  
scarpe rotte e pur bisogna andar  
a conquistare la rossa primavera  
dove sorge il sol dell'avvenir.  
(Haizea dabil, ekaitza zakartu da  
zapatak urratuak eta hala ere ibili behar da  
udaberri gorria konkistatzeko  
bertatik sortzen baita etorkizuneko eguzkia)*

2003an partisanso ohiek monumentu bat eraiki zuten Casanova herriko Marmoreo frazionean (auzoan), Cascioneren eta, haren bidez, borrokan eroritako partisansoen omenez. Mendi baten tontorrean ipinita, monumentura iristeko egin behar den bideak partisansoen borrokaren nolakoa imajinatzeke balio du. Urtero egiten omen da festa bat; bilatuz gero, baina, alferrik da Cascioneren monumentuaz galdetzea: mundu guztiarentzat *Fischia il vento* baita monumentuaren izena. Kantua mugarrria baita italiarren iruditeria kolektiboan.



ciazione Nazionale Partigiani d'Italia) bizi-bizirik dagoela. ANPIren Genoako egoitzara joan ginen arratsaldean bilera jendetsu samar batean bildurik zeuden. Estatutuak berriitu behar omen dituzte. Kontu biologikoa da, zioen Sabrina, dagoeneko partisanso ohi bakan batzuk baino ez daude bizirik. Elkarteak jende gazteari ireki behar zaio, nahiz eta partisansoekin zerikusirik ez izan. Aurre egin behar zaie faxistei. ANPI ez da alderdi politiko bat, azaldu zigun Sabrina. Partisansoetan ibilitako guztien elkarteak da, eta denetarik dago: komunistak, sozialistak, katolikoak... Antifaxismoa da denak batzen dituen ezaugarria. Ulertzekoa dela esan diogu. *Fischia il vento* monumentuko oinarrian dagoen oroitzapen-harria txikituta topatu dugula, esaterako. Garrantzia kendu nahi izan dio; kultura falta; ganberrokeria hutsa. Eztabaidatzen hasia ez da kontua, baina ulergaitza dirudi haraino joateak ganberroarena egin nahi izate hutsarengatik.

Eta Rifondazione?

Saiatu gara mihitik tiratzen.

Rifondazione? Ufff, Rifondazione...

Ez du busti nahi, eta normala da, kanpoko "kazetari" edo "idazle" edo "auskalo zer" batzuen aurrean. ANPI mugimendu zibil eta anitza da, eta alperrik ari gara, ez dugu hortik aterako. Datozen hauteskondeei begira manifestu bat atera dute, "antifaxismoa uko egin ezinezko ondasuntzat daukaten alderdiei" botoa ematera deituz, eta izena aipatu gabe bada ere, Berlusconi ordezkatzen duen indarrak "bere burua faxista aldarrikatu duten hautagaiak aurkezten dituela" gogoratuz.

Rifondazione... Andreak oso ongi ulertzen ez ditugun birao batzuk bota ditu. Zentrorantz biratu nahi omen duen amalgama bat, ezker hautsiaren pusketekin osatua, gobernuan egotea beste helbururik ez duen koadrila bat. Hori litzateke, nolabait esan, Andreak hitzen eta iritzien bertsio "zuzen" samar bat. Rifondazione, Veltroni, Bertinotti, Prodi, D'Alema... Ez zaie serio hartu behar. Ez zaio inori kasurik egin behar, horixe Andreak fedea. Ulergarria da. Izugarria da. Alderdi tradizionalak usteldu dira erabat, alternatiba sinesgarriak ez dago eta gehiengo soziala Milango presidentearekin omen dago. Oraingoan, endekatze etengabearen azken kapituluak ei da atomizazioa eta munstroari oinak ezin geldiaraztea, antza.

Gure ibilbidea Ligurian hasten zen horixe delako Italo Calvinoren *Il sentiero dei nidi di ragno* (Armiarma-habien bidezidorra) nobelaren kokalekua. Gure ibilbide literarioaren oinarrian dagoen hipotesia da inork ez duela kontaktu beren gizartearen bilakaera politikoa eta soziala, azken berrogeita hamar, hirurogei urteetan, italiarrek bezain ongi. Bezain koherente. Gorputz bat osatu arte, non atalak ongi bereiz baitaitezke. Koherente, kontaketa nagusian; ez kolore baka-

## Partisanoen gerra

Historialari guztiak kopuruan ados jartzan ez badira ere, 1943. eta 1945. urteen artean 150.000 eta 300.000 lagun artean jarri omen ziren armetan Italian, alemaniarren eta bertako faxisten aurka borrokatzeko, Brigadetan antolaturik mendian, GAP (Gruppi d'Azione Partigiana) direlakoetan hirietan. 300.000 horietatik 30.000 bat emakumezkoak izan omen ziren. Denetara 40.000 baja inguru eduki zituzten, atxilotuak eta deportatuak kontatu gabe.

Sozialistak, liberalak, demokristauak, are monarkikoak ere partisano-sailetan elkartu ziren. Baina guztietan antolamendu mailarik, kohesio ideologikorik, eta borroka grinarik handienak erakutsi zituztenak komunistak izan ziren. Kopuruan ere haiek izan ziren nagusi.

45eko apirilean alemaniarrek etsi egin zuten, eta urte horretan bertan sortu zen ANPI elkarte (Associazione Nazionale Partigiani d'Italia, <http://www.anpi.it>). ANPIk biltzen ditu bizirik dauden aleak eta ekintza horien oroitzapena gordetzen du. Egoitzak ditu Italiako hiri garrantzizko guztietan eta borrokalari ohien izatera antifaxista atxikitzen du. Gaur egun elkarteak zabaldu nahi dute, gizartearen parte hartzea erraztuz.

rreko, eta ez kontraesanik gabe, haatik, narrazio partikularretan, eta idazleen ibilbideetan. Mussoliniren diktadurako urteak Pavesek kontatu ditu hobekien. Natalia Ginzburg bat edo Pratolini bat lagun. Calvinok eta Vittorinik kontatu zuten liberazioaren une katartikoa, ilusioaren eztanda, gizarte berri baten ametsa. Sciasciak, hogeita hamar urte geroago, ilusio guztien amiltzea, bi nobela zoragarritan: *Il contesto* eta *Todo modo*. Horiek argitaratu zituelarik, Franco bizirik zegoen oraindik. Aldo Mororen bahiketa eta heriotza *Il affaire Moro* liburuan. Balestrinik, *Vogliamo tutto* eta *Gli invisibili* direlakoetan, langileriaren bilakaera eta ustelkeria orokorraren aurkako erreakzioa. Battistik, berunezko urteetako militante armatuen bizimodua, atzerrian edo kartzelan. Ildo oso bat da, Italiako literaturaren barruan. Hobe ikasten da Italiako berri bere literaturaren bidez, historia liburuen, telebistaren edo prentsaren bidez baino.

Hipotesi honen bigarren parte da kontaktizun erraldoi baten itxura daukan ildo horrek balio beharko ligukeela. Mirail moduan ez bada,

Alderdi tradizionalak usteldu dira erabat, alternatiba sinesgarririk ez dago eta gehiengo soziala Milango presidentearekin omen dago. Endekatze etengabearen azken kapitulua ei da atomizazioa

kontrasterako zera bezala. Froga-harri. Italiako gizartearen eta gurearen arteko diferentziak nabarmenak dira. Baina antzekotasunak ere bai.

Bakarrik Liguria eskualdean bost edo sei mila borrokalari ibili ziren mendian 43ko irailetik 45eko apirilera arte. PCIkoak ziren nagusi, beste alderdietakoak ere egon arren. Calvino bera partisano-sailetan ibili zen, Ligurian, familia San Remokoa baitzen. Ez zen idazle bakarra izan. Italia guztian, Vittorini ere bai, Cassola ere bai... Pavese ez, horretarako nahiko kemenik bildu ez eta, nonbait, bera ere komunistak izan arren. Italiako idazle inportanteenetan, nekez aurkitzen da une batean ez bada bestean PCIkoa izan ez denik.

Italiarrak diktadura baten pean bizi izan ziren. Zibila ere izan zen liberazio-gerraren ondoren bota zituzten Mussoliniren faxistak eta alemaniarrek, yankien laguntzarekin. Franco ohean hil zen. Ezberdintasunak eta antzekotasunak. Ausartegia izango da esatea, are burugabekeria ere agian, baina irudipena daukat PCIk, mendealdean indarrak handiena izan duen alderdi komunistak, botoen %30a izatera iritsi zenak, bildu duen atxikimendua, historiaren hondamendiez haratago, eta ideologiaren miserien gaineretik halako nahikunde edo lilura kolektibo baten isla dela. Gizartea benetan aldatzekoa, justuagoa izatekoa. Norberak bila ditzala paralelismoak eta dibergentziak hemen bizi (izan?) gaituen lilurarekin. Eta edonola ere ez ahaztu, otoi, litekeen mundurik onenean bizi garelakoa atzo gaueko kontua dela. Inor ez dela uste horretan bizi, ez hemen, ez Europan, ez lehen munduan, joan diren berrogeita hamar urteetan.

Berlusconiaren piurek ez dituzte ANPIkoak ustekabean harrapatzen. Mussoliniren aire bat ere badauka, gizonak. Non egongo ote dira, eta zertan, bestalde, Balestriniren ikusezinak? Milanon, Erroman, Torinon, ausaz. Hemen bertan ere, Genoan, G-8 horren bileraren aurkako protestetan, zeinean poliziak manifestari bat garbitu baitzuen. Globalizazioaren aurkako mugimenduetan, diot nik, jakin barik. Alerik geratzen bada, bestalde. Balestrini bera eta Negri bera bakean utzi omen dituzte, antza. Battistik Frantziar argitaratzen du, frantsesez, italieratik itzulia, eta kartzelan dago, Italian. Ez da ikasbide txarra. Jantziak urratu genituen gurean Sarri agertzen zen erakusketa bat debekatu zutenean.


## Hobe ikasten da Italiako berri bere literaturaren bidez, historia liburuen, telebistaren edo prentsaren bidez baino

Baina Italian, Italia demokratikoan, errepublikanoan, Battistik ezin du argitaratu. Eta bere hizkuntzan, inon ez. Balestrinik, *Vogliamo tutto*-ren hitzaurrean: erantzun kapitalistak betiko tresnak erabili zituen; lehenik eta behin, bortxazko errepresioa, poliziaren eta epaileen bidez. Milaka atxilotze eta prozesu langileen abangoardiaren aurka... Errepresio judiziala. Italiak ez zuen horregatik demokrazia-labela galdu. Orain hogeit edo hogeita hamar urteko kontuak dira. Gure baitan itxita bizi izan gara euskaldunok, gure zilborrari begira, dena asmatuta dagoela eta ez garelako besteengandik ezberdin erabat ikasi gabe.

Genoako alde zaharra labirinto bat da. Urrea Ameriketara jaio, Espainian hil eta Genoan lurperatzen dutela idatzi zuen Quevedok. Kasu, genoar bati ziria sakatu nahi izanez gero. Genoak historia luzea du, eta itsaso zabalak. Inor ez da kanpotar. Pim bera, Calvinoren *Il sentiero*... nobelako haur protagonista, Genoako portu ondoko kale hauetako umea zen, *Carrugio Lungokoa*. Bere arreba prostituta zen. Lau kalek –Via Prek, Via del Campok, Via di Fossatellok eta Via San Lucak– osatzen omen dute *Carrugio Lungo* izenaz ezagutzen den karrika hori, mutur batean Genoako goi aldeetan, eta bestean Piazza Banchin bukatzen dena. *Lo que pasa es que tú eres un jodón y yo una jodona*, entzun genion, pasaeran, sakeleko telefonoaz ari zen prostituta bati, gaztelaniaz, Karibeko azentuaz. *Sentiero* horretako orriren batean partisoen ikusten dute, menditik, aliatuek Genoa nola bonbardatzen duten, eta animoak ematen dizkiete hegazkinei, beren etxea suntsitzen duten lehena izan dadin. *Casa mia per la prima!* Genoa omen da, hori kontatzen dute harrotasunez, bederen, amerikarrak iritsi aitzin, bere kabuz, alemaniarretatik eta faxistengandik askatu zen Italiako hiri bakarra. ANPI argazki handi eta ederra daukate. Jeneral alemaniarrek Piazza Ferrarira, hiriko erdigunera alegia, iristen ari dira, jende olde bat karrika bazterretik begira. Eta partisoen inguratzen dituztela, euren armekin. Handik bi egunetara dena zegoen martxan, elikadura-horniketa, garraio publikoa, eskola... kontatzen du Sabrina. Gaur egun abortuari buruzko legearen aldeko pintadak ikusten dira. Sabrina dio Ratzingerren eskua luzea dela, eusten saiatzen direla, nekez bada nekez.

Eta Moro? galdetu dugu, justu egunotan bere bahiketa-hilketaren hogeita hamar urte betetzen direla gogoratuz. Torinoko *La Stampa*

## Italo Calvino



Italiar idazlea, halabeharrez Kuban sortua, 1923an, bere gurasoak han bizi izan zirelako bolada batez, lana zela kausa. Agian Italiako idazlerik ezagunena nazioartean 1945etik hil zen arte, hau da, 1985era arte. Bigarren Munduko Gerra bukatu eta berehala hasi zen argitaratzen, *neorealismoa* deitu izan den korrontearen barruko idazle garrantzikoenetakoa izatera iritsiz. Lehen garai horietakoa da artikuluan hainbeste aldiz aipatzen den nobela, *Il sentiero dei nidi di ragno*, 1947an argitara emandakoa. Gerra garaian partisoekin borrokan ibili eta gero, PCI n sartu zen 1945ean. 1960tik aurrera bere literaturak bilakaera nabarmena eduki zuen, eta narrazioaren potentzialtasuna zein intertestualitatea aztertu nahi zituen molde baterantz lerratu zen. Idazle ezinbestekoa da Italiako joan den mende Erdiko literaturaz interesa duenarentzat, eta aski interesgarria, baita ere, mendebaldeko literaturaren norabideak aztertu nahi dituenarentzat. Artikulu honen jatorrian dagoen ibilbide literarioaren eragilea. Berak jakin gabe, noski.

Hungariako inbasioa gertatu zenean (1956) utzi zuen alderdi komunista. Une haiek gogoratuz, hitz hauek idatzi zituen 1980an:

*“Gu, komunista italiarrok, eskizofrenikoak ginen. Bai, uste dut horixe dela termino zehatza. Gure baitako parte batekin egiaren lekukotasuna, ahulei eta zanpatuei egiten zitzaizkien irain guztien mendekatzaileak ginen, izan nahi genuen, gehiegikeria oren aurkako justiziaren defendatzaileak. Gure baitako beste parte batekin, ordea, irainak, gehiegikeriak, alderdiaren tirania, Stalin justifikatzen genituen Kausaren izenean. Eskizofrenikoak. Disoziatuak. Oso ongi gogoratzen naiz herrialde sozialista batetik zehar bidaiatzea suertatzen zitzaidanean, guztiz deseroso, kanpotar, etsai sentitzen nintzela. Baina trenak berriro Italiara ekartzen ninduenean, muga zeharkatzen nuenean, neure buruari galdetzen nion: baina hemen, Italian, Italia honetan, zer izan daiteke bat, komunista ez bada? Hona bada, zergatik mendebaldeki aldearen arteko urteak, estalinismoaren bukaerak, pisu astun bat kentzen zigun bularretik: gure irudi moralak, gure nortasun disoziatua, berriro osatzen ahal zelako, iraultza eta egia berriro bat zetozelako. Hauxe zen, egun haietan, gure arteko askoren ametsa eta itxaropena.”*

Nago hitzok oihartzun berezia daukatela egun eta hemen.

## Aldo Moro

1978ko martxoan Italiako gizarteak sekulako astinaldia jaso zuen: *Brigate Rosse* taldeak Aldo Moro, alderdi demokristauren burua eta Errepublikako lehendakaria, bahitu zuen. Hainbat presoren askatasuna eskatzen zuten Mororen biziaren ordain. 55 eguneko bahiketa eta gero, ez zen konpontzeko modurik izan eta *Brigateek* hil egin zuten politikari demokristaua, izan ziren negoziazio guztiek huts egin eta gero. Morok aldeztu omen zuen PCI demokristauekin batera gobernuan sartzea ("konpromiso historikoa" deitu zena). Hilketaren ondorioz, Cossiga barne ministroak dimisioa eman zuen. Gobernuburua zen Andreotti ere eszenatokitik desagertu zen. Sciascia idazleak arazoak eduki zituen, sektore batek Mororen hil-keta nolabait eragiteaz akusatatu baitzuen. Toni Negri, unibertsitateko irakaslea eta teoriko marxista, langileen autonomia-mugimenduen zale, espetxeratu zuten, akzioaren "egile intelektuala" izan zelakoan. Partido Radicalak bere hautes-zerrendetan sartu zuen handik urte gutxi

batzuetara, eta aske atera zen. Inmunitatea kendu zioten, baina, eta Frantziara ihes egin zuen, "berunezko urteetan" parte eduki zuten beste milaka italiarrekin batera, borroka armatuaren aldekoak izan, ala besterik gabe langileen antolaketa autonomoaren aldekoak eta anti-sistema izan. Cossiga Errepublikako lehendakaria izatera iritsi zen, baina berriz eman zuen dimisioa, ustelkeria kasu eskandaluzkoak gertatu eta gero, zeinetan Andreotti bera eta Bettino Craxi Alderdi Sozialistako burua ere nahastuta ibili baitziren. Hogeita hamar urte geroago, Mororen alargunak salatzen du "estatu arrazoia" nagusitu izanak, benetan ezkututzen duena dela Moro deserosoa zela, baita bere alderdiko kideentzako ere; CIAk hartu zuela parte zabaldu da, PCI gobernura iritsi zedin saihesteko; eta gero eta zabalduago dago *Brigate* direlakoak manipulatu egin zituztela batetik eta bestetik, estatu gizona bizirik atera ez zedin, bere garaiari Sciasciak iradoki zuen bezala *Il affaire Moro* liburuan.

egunkariaren ale bat erakutsi digute, aurtengo otsailekoa. Alargunak elkarrizketa bat eman du. Ez nioke bostekoa emango nire senarraren heriotzaren arduradunari. Baina ez dirudi *Brigate Rosse* haiei buruz ari denik. Aldok dena zekien guztiei buruz, horra zergatik hil zuten, alargunak. Cossigak erantzun du, erantzutera behartuta ikusi omen du bere burua: Mororen alargunari edozer esatea zilegi zaio. Barkabera. Baina gauza jakina da gizon handi baten familiakoak ez direla zertan handiak izan (alargunaz eta semeaz ari da). Oldarkor. Hogeita hamar urteko distantziak, hobeki ikusten da noraino ziren egokiak Sciasciaren iritziak, argia izateak arazoak ekarri bazizkion ere. Gutxienez ez zen kartzelara joan; Negri bai, ordea.

Ventimigliatik Genoara doan kostat zatia ez da Benidorm (hura okerragoa da), baina badu

ANPI (Associazione Nazionale Partigiani d'Italia) mugimenduaren batzarretako bat.

antzik. Calvinok *La speculazione edilizia* (Espekulazio inmobiliarioa) izeneko nobela labur batean ederki kontatu zuen. Kostatik barrurantz hamar kilometro egitea aski 2.000 metro inguruko mendiak topatzeko, batzuek Liguriako aurre-Alpeak edo besterik gabe Liguriako Alpeak deitzen duten tokia. Armando Garellok Nassino herrian du olio-errotia. Hemen, Nassinon, hil omen zuten Cascione segada batean, 45ean. Cascioneren heriotzak badu osagarri epikorik; hilabete batzuk lehenago bi faxista harrapatu zituen Cascioneren gizon-sailak. Horietako bat bereziki ongi tratatu omen zuen Cascionek, hainbeste ze Brigadako batzuek kargu hartu zioten. Cascionek erantzun, orduan: mutilak ez du errurik, bere amak ez badu hezi askatasunaren balioetan. Faxistek ihes egitea lortu zuten, noizbait, eta handik gutxira Cascioneren parti-



## 2008ko apirileko hauteskundeak

2006ko hauteskundeen ondoren Romano Prodi buru zeukan zentro-ezkerreko koalizio batek osatu zuen gobernu Italian. Gobernuak demokrazia kristauaren sektore aurrerakoienetatik komunistetarako espektroa hartzen zuen bere baitan, euren burua zentroko aldarrikatzen duten alderdi txiki batzuk ere barne. Dirudienez, Italiako Hauteskunde Legeak atomizazioa faboretzen du, eta

horren ondorioz, alderdi txikien hedatzea eta proportziorik gabeko indartzea dakar. Hain zuzen, Gobernuari hiru eserleku eskaintzen zion alderdi txiki horietako baten transfugismoak ekarri zuen Prodiaren Gobernuaren errotzea, eta 2008ko apirileko hauteskundearen deialdia. Ematen duenez, bere lerroetan faxista aitortuak biltzen dituen Berlusconi ultraliberalaren hautagaitza da faboritua.

daren bila itzuli, alemaniarren oste handi batekin. Cascione inguraturik geratu zen, Garellok olio egiten duen herri honetan bertan, Nassinon alegia, beste bi lagunekin; batek ospa egitea lortu zuen; Cascione bera zauritu zuten; hirugarrena harrapatu, eta torturatzen hasi, hitz egin zezan. Ea bera zen partida-burua. Ea bera ez bazen, nor zen. Orduan Cascione bera ezkutalekutik atera: utzi bakean, burua neu naiz-eta. Bertan akabatu omen zuten, tiroka.

Egia, gezurra, edo bietatik daukan kontraera estilizatua, egia dena da Calvino Cascioneren heriotzaren berri eduki eta gero sartu zela PCIn, hildakoaren postua hartzeko edo. Eta *Il sentiero...* nobelan bada episodio honen aztarrik: partidako bat traidorea da (*Piel*, ezize-nez); eta partidakoek bi faxista harrapatu eta akabatzen dituzte. Cascioneren heriotzaren mendeku literarioa bailitzan.

Garello zaharrak 70 urtetik gora eduki behar ditu, aise. Beraz, oso litekeena da bera haurra izatea gertaera epiko hauek guztiak gertatu zirenean.

Gertaera horien berririk bai? Hemengo azeitunak %40ko aprobetxamendua dauka oliorako, eta Espainiakoak %15 baino ez.

Ez da gaztelaniaren eta italiarraren arteko saltoa, bakarrik. Konparaziorako, Nassinon eduki genuen solasean, ikasi genuen Ligurian, dialektoz, artaleari *grano di turco* esaten zaiola. Ez, ez diezaiogun errua hizkuntzari egotzi, bakarrik. Gu kazetari txarrak, eta hura agure azeria.

Nassinoko jendeak, edo Casanovakoak, ez luke gaizki emango euskal ruralismo bati buruzko film batean, ez horixe. Eta kosta hiperrurbanizatu eta turistikitik ordu laurdenera daude. Alex Mendizabalek, Elromako Associazione Culturale Euskara elkartearen buru egiten duenak, italiareren dialektalizazio handiaz ohartarazi gaitu. Eta iparraren eta hegoaren artean dagoen kontrasteaz, are arrazismoaz. Nik, Italia ezagutzen dudana apurra, bere idazleengatik ezagutzen dut. Eta bertan egin

Batek beti inpresioa du  
italiarrek hamabost, hoge,  
hogeita hamar urte lehenago  
bizi izan dituztela gu gero  
inarrosi gaituzten gertaerak

ditudan bidaietatik. Hobe, bidaietako batzuk bere literaturaren lilurak eraginda egin ditut. Literaturak jaso du Mendizabalek aipatzen duen arrazismo horren marka; Garibaldik eraman omen zuen xaboia hego aldera; eta hego-koek, jatekoa zelakoan, ahoan sartu. Klasiko bat da. *Terroni* irain peioratiboa erabiltzea bezala. Iparra-hegoa dialektikak edukiko du funtsa, noski. Baina nahiko nituzke ikusi Liguriako menditar hauek kostako Imperian, edo Savonan. Zer esanik ez Genoan. Edo genoar bat Liguriako mendi hauetan. Pavesek *Paesi tuoi* gogoangarrian kontatu zuen bezala, esaterako. 2008ko otsailaren bukaeran, zirkuitu ofizialeatik aterata, ez du ematen Paveseren mundu hori hain urruti dagoenik. Baina ustezko aurrerapenaren lilurak itsutu dituenek, soilik, neurtzen ahal dute xehetasun hau gutxiagotasun-gehiagotasun parametroetan. Bide batez, gure artean: nondik atera dute hainbat espainolek eta are euskaldunek italiarren aurrean erakusten duten nahikotasunezko aire hori? Eta zergatik?

Iparra-hegoa, herria-hiria tentsio horren harira, Adriano Celentanoren *Un albero de trenta piani* kantua etorri zait burura: *Belli come noi ben pochi sai ce n'erano e dicevano quelli vengono dalla campagna*. Kantuak herritik hirirako exodoa ez ezik, hondamendi ekologikoa ere kontatzen du. 72koa da, hor nonbait. Nork zekien hemen zerbait ekologiaz 72an? Batek beti inpresioa du italiarrek hamabost, hoge, hogeita hamar urte lehenago bizi izan dituztela gu gero inarrosi gaituzten gertaerak. Horixe esaten saiatzen ari naiz, horixe adierazi nahi izan dut.

Eta horrek ondorio praktikorik al dakar? Baliteke, ez dakit. Ikasbideren bat ateratzen saiatzen ari naiz, nire baitarako. Hau bururatzaren zait maizen, baina: beti bezala gabiltzara, italiarrak eta gu, eta denak, bueltaka, astotxoak bezala, sudur aurreko azenarioaren atzetik. ■

<http://www.argia.com/argia-astekaria>  
helbidean, bidaiari buruzko muntaia multimedia.